

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdia

Udal honek, 2020ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, dirulaguntza deialdi honen oinarriak onetsi zituen:

2019/2020 ikasturtean euskara ikasteko laguntzen deialdia

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, argitaratu egiten da:

1. Helburua: 2019ko urrian hasi eta 2020ko irailean amaituko den ikasturtean euskara ikasketak egiten laguntzeko beka ematea, bai eta udako ikastaroak eta barnetegiak egiteko ere (joan-etorrietarako gastuak ez dira sartzen, ez eta mantenua eta ostatua ere barnetegietara joanez gero).

2. Onuradunak: euskara ikasteko beka eska dezakete hamasei urtetik gorako pertsonak, baldin eta ikastaroa hasi baino lehen eta ikastaroan zehar etenik gabe Bernedon erroldatuta badaude. Egindako ikastaro edo barnetegi adina beka eska daitezke.

3. Beken zenbatekoa: bekaren zenbatekoa matrikula kostuaren edo ikasketa gastuen ehuneko 50 artekoa izan ahal da, gehienez. Edonola ere, beka ezin izango da izan 250 euro baino gehiago eskatzaileko eta urteko.

4. Aurrekontu kreditua: 1.000 euro, 335.480.000 aurrekontu aplikaziokoa.

5. Dirulaguntza esleitzeko bete behar diren baldintzak: eskatzaileek laguntza eskuratzeko, gutxienez, eskolen ehuneko 75era joan direla egiaztatu beharko dute edo, hala behar denean, matrikulatuta dagoen ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen euskaltegiaren, ikastegiaren edo erakunde ofizialaren agiria aurkeztu.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna: eskatzaileek udalaren laguntzak eta beste batzuk eskura ditzakete, baina bi horien guztien baturak ezingo du gainditu ikastaroaren matrikularen kostua.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

7. Aurkeztu beharreko eskabideak eta dokumentazioa: eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Beka eskaera egitean:

– Inprimaki ofiziala; udal bulegoetan emango da, eta hartan helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo eskatuko den adierazi behar da.

– NANaren fotokopia.

– Eskatzailearen aitortpena, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean dagoela adierazten duena (eredua).

– Matrikularen egiaztagiria, euskaltegiak edo ikastegiak emana. Barnetegiaren kasuan, xehakatu egingo dira irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak.

– Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.

b) Ikasturtea bukatutakoan:

– Eskolen ehuneko 75era joan izanaren egiaztagiria, euskaltegiak emana, edo matrikulatuta egon den ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

– Helburu bererako beste laguntzaren bat jaso bada, hura egiaztatzen duen agiria.

8. Eskabideak aurkeztea eta epeak: laguntza eskaerak, dagozkien agiriekin batera, 2020ko irailaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan.

Ikastaroa bukatu izanaren frogagiriak, eskoletara joan izana edo ikastaroa gainditu izana egiaztatzen dutenak, 2020ko urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira.

9. Eskabideak aztertu eta haiei buruz ebaztea: Euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu eskabideak. Alkateak aurkeztu diren eskaeren inguruko dekretua emango du, teknikariaren txostenak zer dioten jakin ondoren.

10. Azken xedapena: oinarri hauetan xedatu gabekoetan, honako hauek hartuko dira kontuan: udalak onartutako ordenantza, dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen; Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta ekainaren 887/2006 21 Errege Dekretua.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Bernedo, 2020ko ekainaren 1a

Alkatea

RUBEN MARTÍNEZ CRESPO